

Hizkuntzen ahozko erabilera Aiako kalean eta leku publikoetan¹

Jose Anjel Aldai

artxiola@gmail.com

Laburpena. Aiako (Gipuzkoa) kaleetan eta leku publikoetan hizkuntzen ahozko erabilera zein den neurtu dugu lan honetan. Gehienak dira soilik euskaraz egiten dutenak (%64), baina oso portzentaje nabarmenean egiten da gaztelaniaz (%24) eta kode aldaketaren fenomenoak ere begi-bistakoa da (%11). Aiarren harreman sareak aldatzen ari ote diren eta horrek hizkuntzen erabileran eragin argia izan dezakeen hipotesitik abiatutako lana da. Izan ere, azken urteetan gora egin du immigrazioak, eta, gainera, gizarte globalizatuago batean, ia erabat erdaraz jasotzen diren aisialdia eta informazio bide berriak dira nagusi. Horren isla argi zegoen ezagutzaren, etxeko erabileraren eta transmisioaren azken neurketako datuetan, eta orain leku publikoetako hizkuntzen erabileran ere berretsi egiten dela dirudi. • **Hitz gakoak:** *euskara, erabilera, Aia, arnasmune, immigrazioa.*

Abstract. In this study we measured the use of spoken languages on the streets and in public places in Aia (Gipuzkoa). The majority of people (64%) only speak Basque, but a significant proportion (24%) speak Spanish and there is a notable amount of code-switching (11%). This study asks whether the social networks of Aia's inhabitants are being modified and explores the hypothesis that this is exerting a discernable effect upon language use. Immigration has increased in recent years; moreover, in a more globalized society entertainment and information channels that are almost entirely in Spanish predominate. This was clearly reflected in the latest data on language knowledge, use at home and transmission, and it seems to have been confirmed by this study of language use in public places. • **Key words:** *Basque language, use, Aia, vital niches, immigration.*

***Jakin nahi dut
zer hizkuntza
erabiltzen diren
herrigune
bakoitzeko leku
ezberdinetan, bai
kalean, bai leku
publiko jakin
batzuetan.
Halaber,
hizkuntza
bakoitza zer
pertsonak zer
pertsonarekin eta
zein
testuingurutan
erabiltzen duen.***

AURKEZPENA

Aiako (Gipuzkoa) kaleetan eta zenbait leku publikotan ahozko jardunean zer hizkuntza erabiltzen diren neurtu dut lan honetan.

Aian egindako inkestek erakusten dutenez herritarren gehiengo handiak du euskaraz egiteko gaitasuna. Alabaina ia erabat euskalduna izan den herrian eragiten hasteko moduko aldaketa sozioekonomikoak gertatzen ari diren irudipena dut. Nagusiki, bi:

- Aurreko mendearen gehiengan ez bezala, nabaritzeko moduko immigrazioa izaten ari da azken urteetan Aian. Bertako gazteak herrian bizitzen geratzen ari dira, usu herritik kanpokoekin bikotea osatuta, eta herritik kanpoko gazte jendea Aiara etortzen ari da.
- Gazteen belaunaldiak kanpora joaten dira hamabi urtez geroztik, eskolara eta gero lanera. Aian ez bezalako harremana dute erdarekin herritik kanpoko jardueretan, eta orain, gainera, ia erabat erdaraz jasotzen ari diren aisialdiko eta informazio mundu globalizaturako sarbidea dute.

Berandu baino lehen, Aiako kaleetan eta leku publikoetan egiten den hizkuntzen erabileran zer eragin izaten ari den ikertu behar delakoan egin dut lan hau.

Horrekin batera, euskaraz gehien egiten den herri txikietako egoera soziolinguistikoa aldatzen ari deneko berriak azaleratzen ari diren honetan, Aiako datuak ere ezagutaraztea on litzateke, gainerakoekin alderatzeko, eta batik bat, informazioa osatzeko.

Aurretik Aian ez da egin hizkuntzen kale erabileraren neurketarik, eta honekin hutsune hori betetzen saiatu nahi nuke. Eustaten inkestak (2011) hizkuntza gaitasunaren, transmisioaren eta etxeko erabilera aitortuaren berri ematen du; horiek osatu eta Aiako erkidegoa hobeto deskribatzeko eta ezagutzeko moduan izango garelakoan nago.

Jakin nahi dut zer hizkuntza erabiltzen diren herrigune bakoitzeko leku ezberdinetan, bai kalean, bai leku publiko jakin batzuetan. Halaber, hizkuntza bakoitza zer pertsonak zer pertsonarekin eta zein testuingurutan erabiltzen duen: zenbat, nork eta zertan egiten den euskaraz edo erdaraz, eta zenbat egiten den hizkuntzen arteko kode aldaketa.

Behaketaren datuak osatzeko, Aiako erkidegoaren alderdi soziolinguistiko eta sozioekonomiko nagusiak azalduko ditut. Horretan laguntzeko,

hizketa erkidegoak zer diren eta hizketa erkidego elebidunak nolakoak diren ikertzeko hizkuntzalariek egindako ekarpen teorikoak biltzen saiatu naiz. Hizkuntzen arteko ukipen egoerak nolakoak diren, zer ondorio izaten diren eta zer emaitza izaten duten. Batik bat, hizkuntz hautuan zerik eragiten duen.²

1. ERKIDEGOAREN DESKRIBAPENA

I

1.1 Aiaren aurkezpena

1.1.1 Kokapena

Gipuzkoako iparraldean dagoen herria da Aia. Lur zerrenda batean itsasoraino iristen da, baina herrigune nagusia eta auzorik gehienak itsasotik urrunduta, barrurago dauzka. Kaskoa —herrigune nagusiari deituko diot kaskoa lan honetan— 310 metro inguruko altueran dago, Pagoeta mendiaren magalean, itsasotik zortzi bat kilometrora. Punturik baxuena itsasoan du, eta altuena Pagoetan, Murugil gaina (717m). Lur eremu zabalak ditu udalerrriak, guztira 55 km².

Donostiatik 30 km ingurura dago kaskoa. Iparraldean Oriorekin, Zaurutzekin eta Getariarekin egiten du muga, ekialdean Usurbil eta Zizurkilekin, hegoaldean Asteasu eta Errezilekin, eta mendebaldean, Zestoarekin eta Aizarnazabalekin. Azpeitiko barruti judizialean dago.


1.1.2 Biztanleria

Herrigunean hiru biztanletik bat bizi da, eta gainontzekoak hamabi auzotan barreiatuta. Kaskoaz gainera, herrigune txikiagoak osatzen dituzten auzoak badira: Andatza, Santio, Arratola, Laurgain, Elkano, Urdaneta eta Altzola. Gainerako auzoetan —Etxetaballa, Iruretaegia, Kurpidea, Olaskoegia eta Arrutiegia—, gunerik osatzen ez duten base-erriak dira nagusi.

Gaur egun 2.053 biztanle bizi dira guztira (Aiako Udala, 2014ko abendua). Orain dela 150 urte baino dezente gutxiago (1860: 2.529 biztanle), eta orain dela hamalau urte baino nabarmen gehiago (2001: 1.610 biztanle).

Gaur egun 2.053 biztanle bizi dira guztira. Orain dela 150 urte baino dezente gutxiago, eta orain dela hamalau urte baino nabarmen gehiago.

1. grafikoa: Aiako biztanleria azken 150 urtean (Iturriak: EUSTAT eta Aiako Udala)




Biztanle horietarik gehienak kaskoan eta inguruko auzo txikietan biltzen dira. Hemen banaketa, auzoz auzo:

1. taula: Biztanleria auzoz auzo (Iturria: Aiako Udala, 2014ko abendua)


Gunea edo auzoa	Biztanleak	
Kaskoa	652	31,8%
Kurpidea	64	3,1%
Etzetaballa	33	1,6%
Altzola	13	0,6%
Iruretaegia	102	5,0%
Andatza	257	12,5%
Santio	266	13,0%
Elkano	113	5,5%
Urdaneta	71	3,5%
Laurgain	69	3,4%
Arrutiegia	95	4,6%
Olaskoegia	188	9,2%
Arratola	130	6,3%
Guztira	2053	100%

1.1.2.1 Biztanleria adin taldeka eta jatorriaren arabera

- Azken hogeita hamar urteetan gehiago izan dira, nabarmen, gizonetakoak emakumeak baino, eta 2013an ere artean hala ziren: %53.
- Tarte horretan txikitu egin da apur bat gazteen portzentajea eta hazi zaharrena, baina azken hamarkadan gorako joera hartu du berriz.



- Ia bost aldiz hazi da Gipuzkoatik kanpo jaioakoen kopurua joandako 30 urtean, baina oraindik ere oso nagusi dira Gipuzkoan jaio-takoak (%91) —pentsatzekoa da gehienak Aian bertan jaio-takoak izango direla.




1.2 Hizkuntza

Lan honetan euskaren erabilera nolakoa den aztertuko dut, eta ez dut Aiako euskararen azterketarik eta deskribapenik egingo. Uste dut Aiako hizkerak bat egiten duela, hein handian, Koldo Zuazok (2014) Erdialdeko euskara deitu duen dialektoaren ezaugarriekin.

1.2.1 Hizkuntza gaitasuna


Gaur egun —EUSTATen azken datuak 2011koak dira— oraindik nahikoa txikia da erdaldunen portzentajea Aian: 109 lagun, %⁶. Gainerakoak ia denak euskaldunak dira (%88), eta beste %6 (118 lagun) ia-euskaldunak⁴.

Hirukoiztu egin da azken 25 urtean erdaldunen portzentajea, nabarmen hazi da ia-euskaldunena (%53), eta jaitsi egin da euskaldunena, ia batere ez 1986-2001 tartean, baina zazpi puntu azken hamar urteetan.



Hirukoiztu egin da azken 25 urtean erdaldunen portzentajea, nabarmen hazi da ia-euskaldunena (%53), eta jaitsi egin da euskaldunena, ia batere ez 1986-2001 tartean, baina zazpi puntu azken hamar urteetan.

5. grafikoa: Hizkuntza gaitasunaren bilakaera (%) 2001-2011 (Iturria: EUSTAT)




Euskaldun horien gehiengo handia alfabetatua da egun, biztanleen %69 baitira euskaldun alfabetatuak. Alde handia 1986tik: orduan biztanleen %10 soilik zen alfabetatua, eta %81, partzialki alfabetatua⁵. Adinarean araberako alde handirik ez dago hizkuntza gaitasunean. Emakume euskaldunen portzentajea lau puntu altuagoa da gizonezkoena baino.

Jatorriaren araberako gaitasunean ez dut ikusi datu oso harrigarrik: azken inkestan, euskara gaitasuna nabarmen handiagoa da Gipuzkoan jaiotakoen artean (%94); apalagoa EAEko gainerako lurraldeetako artean (%72), baina horien artean %24 ia-euskaldun dira, beraz, multzo horretan ere oso txikia da erdaldunen portzentajea; eta, azkenik, EAEtik kanpo jaiotakoen artean ia erdia (%47) erdaldunak ziren 2011n.

1.2.2 Lehen hizkuntza

Bi urtetik gorako biztanleen artean nabarmen hazi da azken urteetan beren lehen hizkuntza gaztelera dutenen kopurua. Azken neurketan %15 ziren, hamar urte lehenago soilik %5, beraz, hirukoiztu egin dira; eta 25 urte lehenago %2 baizik ez ziren. Jaioterriaren arabera nabarmenagoak dira aldeak: EAEtik kanpo jaiotakoen artean, soilik %14k du euskara lehen hizkuntza, %65ek gaztelera, eta %20k beste hizkuntzaren bat.

6. grafikoa: Lehen hizkuntza (%) (Iturria: EUSTAT)



Bi urtetik gorako biztanleen artean nabarmen hazi da azken urteetan beren lehen hizkuntza gaztelera dutenen kopurua. Azken neurketan %15 ziren, hamar urte lehenago soilik %5, beraz, hirukoiztu egin dira.


1.2.3 Hizkuntza erabilera etxean

Atzera egiten ari da euskararen erabilera etxe barruan: hamar urtean —2001-2011—, %92tik %74ra. Aldiz, gaztelaren erabilera asko hazten ari da, 2011n %17raino joan baita —hamar urte lehenago %5ek baizik ez zuen aitortzen etxean gaztelera egiten zutela—. Gainera, EUSTATEN inkestak jasotzen duen informazioa norberak aitortutako erabilerarena da, eta, beraz, litekeena da are apalagoa izatea euskararen erabilera etxeetan:

‘Gizarte zientzietako ikerketa-tekniken eremuan jakina da, herritarren portaerak aztertzeke garaian, aldea izan daitekeela benetako portaeren eta inkestan herritarrek aitortzen dituztenen artean. (...) Gaur egungo euskaldunen artean euskararen aldeko jarrerak nagusi izanik, logikaren barnean sartzen da bete-betean benetan erabiltzen den baino euskara gehiago erabiltzen dela erantzutea inkestetan (Iurrebaso, 2012a:98)’.

Atzera egiten ari da euskararen erabilera etxe barruan: hamar urtean —2001-2011—, %92tik %74ra. Aldiz, gaztelaren erabilera asko hazten ari da, 2011n %17raino joan baita — hamar urte lehenago %5ek baizik ez zuen aitortzen etxean gaztelera egiten zutela—.


7. grafikoa: Etxeko hizkuntza (%) (Iturria: EUSTAT)



1.2.4 Bilakaera eta alderaketa

Euskararen gaitasunaren eta haren etxeko erabilaren adierazle nagusiek joera berdintsua erakutsi dute joandako hogeitazazpi urtean. Gaitasunean txikiagoa da galera, eta kopuruari begiratzen badiogu, ikusiko dugu euskaldun kopurua hazi egin dela —100 euskaldun pasatxo gehiago 1991-2011 tartean—, baina portzentajea jaitsi egin da, hiztun kopurua gehiago hazi delako —250 hiztun gehiago tarte berean—.

8. grafikoa: Adierazle nagusien bilakaera (%) (Iturria: EUSTAT)




Datuen bilakaera antzekoa izan da inguruko herri euskaldunenetan, eta baita ere Euskal Autonomi Erkidegoko gainerako udalerri euskaldunetan⁶, berriki Soziolinguistika Klusterrak argitaratu emandako datuen bildumak erakusten duenez. Hala ere, badira aldeak:

- Hizkuntza gaitasuna berdin mantendu da edo hazi egin da Aia-
rekin muga egiten duten herriotako handienetan: Usurbilen eta Za-
rautzen.
- Hizkuntza gaitasuna hazi egin da baita ere lehendik euskaldun
portzentajerik txikiena zuen Zizurkilen.
- Inguruko gainerakoetan⁷ Aiako antzeko joera ikus daiteke.

EAEko udalerri euskaldun guztiak kontuan hartuta, batez beste %72koa
zen euskara gaitasuna 2011n; Aian %88.

2011n etxeko euskararen erabilera, inguruko herrion artean, Errezilen
(%79) baizik ez zen Aian (%74) baino altuagoa. Denetan egin du behera,
baina soilik hiru herritan egin du behera Aian baino gehiago: Aizarna-
zabalen (%21), Errezilen (%19) eta Orion (%21).

9. grafikoa: Etxean euskaraz egiten dutenen bilakaera (%) (Iturria: EUSTAT)



**2011n etxeko
euskararen
erabilera,
inguruko herrion
artean, Errezilen
(%79) baizik ez
zen Aian (%74)
baino altuagoa.
Denetan egin du
behera, baina
soilik hiru
herritan egin du
behera Aian
baino gehiago:
Aizarnazabalen
(%21), Errezilen
(%19) eta Orion
(%21).**

1.3 Hezkuntza eta kultura

1.3.1 Eskola

Gaur egun eskola bakarra dago Aian, kaskoan. Ikastetxe publiko horre-
tan Lehen Hezkuntza osatzen dute haurrek. Handik, gero, gehienak
Zarautzera bideratzen dira Bigarren Hezkuntza egitera. Orain dela urte
gutxi arte eskola izan da baita ere Andatza auzoan, baina itxi zuten.
Andatzako ikasleetako batzuk kaskora joaten dira, baina badira Oriora
joaten direnak ere; Oriora egiten dute baita ere, normalean, Santio eta
Arratola auzoetako Lehen Hezkuntzako ikasleek; aldiz, herriaren men-
debaldean dauden Urdaneta eta Elkano auzoetakoek Zarautzera egiteko

joera dute, Aiako kaskoa baino askoz gertuago dutelako.


Aian ikasten duten guztiek euskaraz egiten dute, D ereduan. Erabat euskaraz ari dira 1986az geroztik. Aurretik ere euskaraz ikasten aritu ziren gehien bat eskolako haurrak 1977-1978 ikasturte ingurutik; artean irakasleen borondatearen esku, hein batean. Horrek esan nahi du gaur egun 40 urte pasatxo dituzten gehienek izan dutela euskaraz oinarrizko hezkuntza.

2011ko datuen arabera, 147 ikasle ari ziren guztira Aiako eskolan ikasten.

Aian handiagoa da analfabetoen indizea inguruko herrietan eta Autonomi Erkidegoan baino, eta baita ere, nabarmen, ikasketa formalik ez duten herritarrena. Era berean, txikiagoa erdi edo goi mailako ikasketak dituztenen portzentajea.

Nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan, eta, oro har, baserriko edo etxeko lanetan egiten zuten lan Aiako biztanle gehienek orain dela hamarkada gutxi arte; eskola gutxi izaten zuten baserriko haurrek, eta nekez jarraitzen zioten eskolako bideari derrigorrezko hezkuntzatik aurrera. Herrian inoiz ez da izan bigarren mailatik aurrerako eskola eskaintzarik, kanpora jo behar zen, eta gaur egun ez bezala, eskola-garraiorenk ez zen izaten 1990 urte ingurura arte. Garraio publikoa ere oso urria izan dute; 2008an ezarri ziren autobus zerbitzu berriak. Trenik ez da pasatzen Aiako kaskotik eta auzoetatik⁸.

10. grafikoa: 10 urtetik gorakoen ikasketa maila 2013an (%). (Iturria: EUSTAT)



1.3.2 Kultura jarduera

1.3.2.1 Ekitaldiak

Kultur Etxeak antolatzen dituen ekitaldi eta ikastaroak⁹ ingelesekoa ez beste guztiak dira erabat euskaraz; haurrentzat zein helduentzat antolatzen dira.

Kaskoko Gaztelekuak 2012an ireki zituen ateak. Bertara 12-17 urte bitarteko gazteak biltzen dira asteburuetan, begirale batekin. Egoitzan bertan denbora-pasarako dituzten baliabideez gain, beste hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, denak euskaraz.

Eskolako guraso elkarteak ere lan aktiboa egiten du eskolaz kanpoko ekitaldiak antolatzeko, batez ere eskola-umeentzat, baina baita gainerako gazte eta helduentzat ere; erabat euskaraz.

Kirol ekitaldi hainbat antolatzen ditu Kirol Elkartek, udalarekin, guraso elkartearekin eta Gaztelekukoekin batera. Horien artean inportanteenak eskola-umeentzat prestatzen diren entrenamenduak eta eskola-kiroleko partidak dira, denak euskaraz.

1.3.2.2 Liburutegiko maileguak

Interesgarria da ikustea azken urteetan bilakaera izaten ari dela herriko liburutegian euskaraz eta gazteleraz egiten diren maileguetan: filmetan, askoz gutxiago dira oraindik euskaraz hartzen direnak, baina sei puntu egin du gora kopuruak azken bost urtean; liburuetan, dezente jauzi handiagoa izan dute euskarazkoek, eta bost urtean %37tik %50era pasa dira.

1.3.3 Euskara ikasleak

Aian bertan ez dago euskaltegirik, baina eskaerarik bada Urola Kostako AEK-k antolatzen ditu euskara ikasteko eskolak helduentzat. 2014-15 ikasturtean 11 lagun ari ziren euskara ikasten, gehienak herritik kanpoko euskaltegietan. Azken urteetan izan diren ikasleak eta zein mailatan aritu diren erakusten du taula honek:

Interesgarria da ikustea azken urteetan bilakaera izaten ari dela herriko liburutegian euskaraz eta gazteleraz egiten diren maileguetan: filmetan, askoz gutxiago dira oraindik euskaraz hartzen direnak, baina sei puntu egin du gora kopuruak azken bost urtean; liburuetan, dezente jauzi handiagoa izan dute euskarazkoek, eta bost urtean %37tik %50era pasa dira.

2. taula: Euskara ikasle helduak. (Iturria: HABE)

	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15
B1	3	4	3	5	6	8	4	2	11	10	5
B2	4	2	7	2	6	5	4	4	1	4	4
C1	3	5	4	3	4	5	3	2	1	2	1
C2	-	-	-	-	-	-	-	-	2	1	1
Beste (ikas prozesutik kanpoko beste ikastaro jasoak)	-	-	-	-	1	-	2	1	-	-	-
Matrikulatuak, guztira	10	11	14	10	17	18	13	9	15	17	11

1.3.4 Hizkuntza paisaia eta zerbitzuetako hizkuntza

1.3.4.1 Kartelak, seinaleak

Herriko kaskoan, Santio auzoan eta Urdaneta auzoan egin ditut argazkiak: kaletik ikus daitezkeen denda eta tabernetako kartelak, jatetxeetako menuak, era guztietako kartel eta iragarkiak, etxeak saltzekoak, garaje sarreretakoak, errepideko seinaleak, hiri-altzarietakoak, turismo informaziokoak, etxe izenak eta kale izenak.

Oso gutxi ikusi ditut gaztelania hutsez —lauzpabost—, euskara hutsez ia erdiak, eta ia kopuru berdinean elebitan edo eleanitzak, eta bakarren bat ingelesez. Udalaren iragarki, seinale eta ohar ia guztiak elebitan idatziak daude. Tabernetako menuak elebitan daude ia erabat, baina baten bat ikusi dut gazteleraz. Seinale eta kale izen gehienak euskaraz, baina baita elebitan ere.

1.3.4.2 Zerbitzuetako hizkuntza

Aiako kaskoko zein auzoetako establezimendu guztietan ematen dute euskarazko zerbitzua; taberna batzuetan badira zerbitzari erdaldunak, baina soilik erdaldunak daudenik ez dut ikusi.

Tabernetan menuak elebitan dira ia erabat, iragarki eta kartelak euskaraz gehienak. Egunkariak dituztenek gaztelaniazkoak dituzte. Dendetako kartel gehienak euskara hutsez dira, baina badira elebitan ere. Zerbitzari guztiak euskaldunak dira. Posta bulegoan euskaraz egiten dute langileek; kartelak elebitan daude.

Udal bulegoetan euskaraz egiten dute harrera, eta informazio orri eta kartelak euskaraz eta elebitan daude. Kutxan euskaraz egiten dute; informazio orriak elebitan.

Osakidetzako anbulatorioan euskaraz egiten dute harrera; informazio orri eta kartel batzuk euskaraz, beste batzuk elebitan, eta zenbait gazte-


laniaz ere bai. Mezak, asteen bi kaskoan eta bat Urdaneta auzoan, denak euskaraz dira.

1.4 Demografia eta etxebizitzak

1.4.1 Biztanleria eta migrazioa

Lehenik, azpimarratu nahi nuke azken hamarkadan biztanleriak izan duen hazkundera: 2013tik 2014ra soilik %0,04koa izan da, baina azken hamarkadakoa ia-ia %20koa.

11. grafikoa: Biztanleriaren azken hamarkadako aldaketa (%). (Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ogasun eta Finantza Saila)




Datu horiek azaltzeko bi arrazoi egon daitezke: bertako hazkunde begetatiboa eta migrazioa. Hazkunde begetatiboaren datuak 2013koak bakarrik bildu ditut, eta, bai, horietan ikus daiteke Aiakoa alderaketarako erabili ditudan gainerako hiru eremu horietakoa baino altuago dena: 3,92-koa mila biztanleko; Urola Kostan 1,79-koa izan zen, eta Gipuzkoakoa eta EAEkoa, negatiboak: -0,13 eta -0,26 hurrenez hurren.

Antzeko emaitza ikusi daiteke kanpoko migrazio saldoari begiratzen badiogu, askoz handiagoa izan baita Aian 2013an:

Lehenik, azpimarratu nahi nuke azken hamarkadan biztanleriak izan duen hazkundera: 2013tik 2014ra soilik %0,04koa izan da, baina azken hamarkadakoa ia-ia %20koa.

12. grafikoa: Kanpoko migrazio saldoa 2013an (%). (Iturria: Eusko Jaurlaritz. Ogasun eta Finantza Saila)



Badirudi migrazio saldoak negatiboak izateko bidean direla inguruko batez bestekoan, baina Aian kontrakoa dela oraindik joera. Aian, gainera, migrazioa batez ere azken hamarkadan hazi da:

1.4.2 Etxebizitzak eta urbanizazioa

Eraiki ahala hazi egin da biztanleria, bai bertan bizitzen gazte gehiago geratu delako, bai, kanpotik jende gehiago etorri delako.

3. taula: Etxebizitza berriak. (Iturria: Aiako Udala)

	1974–1984	1984–1994	1994–2004	2004–2014	Guztira	
Kaskoan	20	37	30	157	244	66%
Andatzan	-	-	36	6	42	11%
Santion	-	-	-	22	22	6%
Urdanetan	-	5	-	8	13	4%
Elkanon	-	-	-	7	7	2%
Arratolan	-	-	20	7	27	7%
Olaskoegian	-	-	-	5	5	1%
Iruretaegian	-	-	-	4	4	1%
Arrutiegian	-	-	-	2	2	1%
Laurgainen	-	-	-	2	2	1%
Guztira hamarkadan	20	42	86	220	368	100%

Datuak argiak dira. Batetik, azken hamarkadan aurreko hiruretan batera baino arrunt gehiago eraiki da, berrogei urteko tartearen %60. Eta bestetik, kaskoan eraiki da batez ere, guztiaren bi heren —kontuan izan kaskoan udalerriko biztanleria osoaren herena baizik ez dela bizi—.

1.5 Ekonomia jarduera

Ekonomia sektoreen balio erantsian (2010) ikusten da alde handi samarra dagoela oraindik ere Aiaren eta gainerako eremuen artean: nekazari-

tzarena, batez ere, eta industriarena ere bai, askoz handiagoak dira Aian.

4. taula: Ekonomia sektoreen balio erantsi gordina, 2010 (%). (Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ogasun eta Finantza Saila)

	Aia	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza eta arrantza	6,40	1,80	0,60	0,70
Industria	49,50	35,60	27,60	23,70
Eraikuntza	8,70	10,70	8,80	8,80
Zerbitzuak	35,40	52,00	63,00	66,70
Ogasun eta Finantza Saila)				

Aian, lana duten 16 urtetik gorakoak askoz gehiago dira nekazaritzan eta arrantzan beste eremuetan baino. Hala ere, aurreko hamarkadetan baino nabarmen txikiagoa da kopuru hori. Historiako liburuek diotenez, oraintsu arteko daturik ematen ez badute ere, aiarrak ia erabat lehen sektorean aritzen ziren lanean —1991n artean ia heren bat ari ziren nekazaritzan eta arrantzan—, eta ondorioz, herrian bertan gehienak. 2011ko datuen arabera, aitzitik, Aiako langileen hiru laurdenak herritik kanpoko ari ziren lanean (Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Finantza Saila).

5. taula: Lana duten 16 urtetik gorakoak, 2011 (%). (Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ogasun eta Finantza Saila)

	Aia	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza eta arrantza	9,85	1,91	0,89	1,02
Industria	21,17	30,65	23,59	19,86
Eraikuntza	9,96	7,46	6,97	7,44
Zerbitzuak	59,00	59,96	68,53	71,66

2 METODOLOGIA

I

2.1 Abiaturuko hipotesiak

2.1.1 Mintzaldaketa gertatzen ari deneko zantzuak

Aiako kalean eta leku publikoetan, mintzaldaketa gertatzen ari deneko zantzuak ikusiko ditugula da nire lehen hipotesia.

Fishmanen (1991) arrazoietan oinarrituta egindako mintzaldaketarako faktore eragileen zerrendan hauek bildu zituen Zalbidek (2009): 1) Hizkuntza erabiltzeko debekua; 2) Dislokazio fisikoa; 3) Dislokazio demografikoa: hizaunen multzoa dentsitatez, kontzentrazio fisiko, nabarmen ahultzea; 4) Dislokazio soziala: gizartearen berrikuntzan, jardun berrie-

Euskal hiztunen multzoa txikitu egin da portzentajearen (7 puntu, 2001etik 2011ra).

Zenbait auzotako biztanleak oso aparte bizi dira herrigune nagusitik, eta Zarautzera eta Oriora begira egunerokoan.

Jarduera ekonomikoak aldatzen ari dira; egoera sozioekonomikoa aldatzen ari da Aian ere, eta ondorioz, harreman sare berriak sortzen.

tarako eta harreman sare berrietarako beste hizkuntzen beharra sentitzea; eta 5) Dislokazio kulturala, aurrekoaren osagarri: bizimodu berriaren berrikuntzak hizkuntza baten indargarri eta bestearen galgarri gertatzea.

Irudipena dut faktore horietako batzuen eragina izan daitekeela Aian eta kontuan hartzekoak direla, batez ere azken hirurak:

- Euskal hiztunen multzoa txikitu egin da portzentajearen (7 puntu, 2001etik 2011ra).
- Zenbait auzotako biztanleak oso aparte bizi dira herrigune nagusitik, eta Zarautzera eta Oriora begira egunerokoan.
- Jarduera ekonomikoak aldatzen ari dira; egoera sozioekonomikoa aldatzen ari da Aian ere, eta ondorioz, harreman sare berriak sortzen.
- Aisialdirako, informaziorako eta oro har komunikaziorako, bitartekoak eta moduak aldatzen ari dira.

2.1.2 Gazteek euskaraz gutxiago eta giro jakin batzuetan ere bai

Jada lehen hipotesian aipatutako faktore horien artean nabarmenenak iruditzen zaizkidan bi faktore-multzoren eragina ikusi nahi nuke ondoko hipotesiak planteatzeko: gizarte irekiagoarena eta egoera sozioekonomiko ezberdinarena, eta horiek talde jakin batzuetan eta giro jakin batzuetan eragin handiagoa izan dezaketen hipotesia aurreratu.

Bada faktore inportante bat indartsuago diren hizkuntzekin ukipen egoeran dauden hizkuntz gutxiagotuei eragiten diena: Siguán-ek (2001) ‘gizarte kosmopolita’ deitzen duena, ‘pertsonek batetik bestera ibiltzeko duten erraztasun handiagatik eta informazio hedabideen erabateko presentziagatik’. Interneterako sarrera nabarmenduko nuke informazio hedabide horien artean, interneten ematen dute beren denbora gazte gehienek gaur egun, eta beraz, euskaraz —inguruko erdarekin alderatuta— gutxi egiten den eremuetan. ‘Perspektiba ekonoteknikoaren eskala-dimentsioaren aldaketa’, ‘informazio eta komunikazio teknologien leher-eztanda’ eta euskaldun gazteen ‘ohitura eta lehentasun sozio-kultural berriak’ deitu ditu Zalbidek (2011:112).

Euskaraz egiteko gaitasun erlatiboan izan dezake horrek bere isla, gazteek beste hizkuntzekin duten ukipena handiagoa den neurrian, jardungune batzuetan hizkuntza horien erabilpena hazten den heinean, litekeena delako apurka-apurka hizkuntza horietan bezain ondo ez egitea euskaraz, eta errazen edo ondoen egiten den hizkuntza erabiltzera jotzea. Hizkuntzaren erabilera egokirako hiru alorreko baldintzak dau-

dela dio Martinez de Lunak (2004): norbanakoaren ezaugarriak, harreman sareak eta gizarte egitura. Haren iritziz, gaitasunaren kasuan, gaitasun erlatiboa da garrantzitsua, alegia, pertsona elebidunak beste hizkuntzetan bezain ondo edo hobeto egiten ote duen euskaraz (2004:2).

Bestetik, egoera sozioekonomikoa aldatu egin da nabarmen: herritik kanpo egiten dute lan herritar gehienek (2011n, lautik hiruk), eta hamabi urtetik aurrerako gazte guztiak irteten dira kanpora ikastera. Horiei beste bi faktore inportante erantsi behar dizkiegu: a) Oso nabarmen hazi da immigrazioa azken hamar-hamabost urteetan; eta b) Etxebizitza askoz gehiago eraiki da azken hamarkadan aurrekoetan baino, eta horrek bi eragin argi utzi ditu: herriko gazteak bertan gehiago ari dira geratzen — kanpokoekin ezkontuta, askotan—, eta, bestetik, inguruko herrietako eta are Euskal Herriaz kanpoko biztanleria hazi egin da, etxebizitzaren — inguruan baino merkeago— eskaintza ere hazi den neurrian.

Nahikoa datu izan daitezke pentsatzeko Aiako gizarte egoera eta harreman-sareak aldatu egin direla. Egile gehienak (Blom eta Gumperz, 1979; Hamers eta Blank, 1983; Appel eta Muysken, 1996; Martinez de Luna, Jausoro, Berrio-Otxoa eta Idirin, 1998; Moreno Fernández, 1998; Arratibel, 1999; Siguán, 2001; Etxebarria, 2003) datoz bat harreman sare horiek eta, oro har, egoera sozialak berebiziko eragina dutela hizkuntz hautuan.

Nire hipotesiak dira, hortaz:

- 1.2.1- Gazteek beste adin taldeetakoek baino gutxiago egiten dutela euskaraz, beste adin tarteetakoek baino irekiago daudelako informazio eta komunikazio teknologia horiek eskaintzen duten eremura eta gehiago mugitzen direlako.
- 1.2.2.- Antzemango dela eragina kanpora —aisialdian, lanera edo ikastera— gehien jotzen duten gainerako herritarren artean ere; eta kontrara, haurrak eta heldu zein adineko zaharrenak izango direla euskaraz gehien egingo dutenak.
- 1.2.3.- Halaber, uste dut giro jakin batzuetan gehiago nabaritutako direla egoera sozioekonomiko berriaren eta gizarte sare berrien ondorioak eta erdararen presentzia handiagoa: eskola inguru eta jolas-parkeetan eta taberna inguruetan.

2.1.3 Haurrekin euskaraz

Haurrekin helduek beren artean baino euskara gehiago erabiliko delakoan nago.

Nahikoa datu izan daitezke pentsatzeko Aiako gizarte egoera eta harreman-sareak aldatu egin direla. Egile gehienak

Datoz bat harreman sare horiek eta, oro har, egoera sozialak berebiziko eragina dutela hizkuntz hautuan.

**Herrikoa izateak
eta herritar
gehienak
ezagunak izateak
erraztu egin dit
Hizkuntzen Kale
Erabileren
Euskal Herriko
neurketetan
biltzen ez
dituzten beste
datu batzuk ere
biltzea: pertsonen
harremana —eta
horrekin batera
jardunguneak
hobeto zehazteko
aukera—, eta
hiztunen jatorria,
Aiakoak diren
ala ez.**

Hainbat kale neurketatan ikusi da hori. Heldu ia-euskaldunak ez dira gai edo ez dira ausartzen beren artean euskaraz egiten, baina beren haurrekin egin ohi dute. Aian ere badira euskaraz oso nekez egiten duten helduak, nahiz eta portzentaje txikiagoan izan, eta haur ia denak euskaldunak dira; beraz, oso litekeena da joera hori Aian ere ikustea.

2.1.4 Kode aldaketa handia

Nire beste hipotesia da oso litekeena dela kode aldaketa handia ikustea.

Kode aldaketa ohikoa dela erakutsi dute ikerketa anitzek, ‘*diskurtso elebidunaren muin-muinekoa*’ da, Appel eta Muyskenen ustez (1996:176), eta hizkuntz hautuaren emaitzarik nabarmenetakoa (Etxebarria, 2014:18).

2.2 Datu bilketarako metodologia

Lan honetan Aiako eremu publikoetan une jakin batzuetan zein hizkuntzatan ari diren jaso nahi da. Horretarako, behaketa librearen bidez, neurtzailearen inolako interferentziarik gabe aritu behar da: dagokion une eta tokian entzun egingo dut, eta fitxan jaso, zein hizkuntzatan ari diren. Alegia, hizkuntzen ahozko erabilera jasoko dut soilik eta era naturalean egiten dena.

2.2.1 Diseinua

Datu bilketaren diseinua egitean egokitu egin behar izan ditut antzeko informazioa biltzeko erabili ohi diren inkesta ereduen ezaugarriak, hain zuzen Soziolinguistika Klusterrak erabili ohi duen hizkuntzen kale erabilera neurtzeko inkestarenak (Altuna eta Basurto, 2012, 2013): zer hizkuntzatan ari diren, zein lekutan, zein egun eta ordutan, zein jardungunetan zer pertsona ari diren eta zer harreman duten, zertaz ari diren eta zer jatorri duten.

Herrikoa izateak eta herritar gehienak ezagunak izateak erraztu egin dit Hizkuntzen Kale Erabileren Euskal Herriko neurketetan biltzen ez dituzten beste datu batzuk ere biltzea: pertsonen harremana —eta horrekin batera jardunguneak hobeto zehazteko aukera—, eta hiztunen jatorria, Aiakoak diren ala ez.

Euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean ari diren jasotzeaz gain, kode aldaketa egiten ari diren elkarrizketak ere jasoko ditut, lehen esan bezala, usu ager daitekeen fenomeno delakoan nagoelako.

Soziolinguistika Klusterrak egiten dituen inkestetan ez bezala, bestalde, ahalik eta leku publiko gehienetan izaten saiatuko naiz; bai hizkuntzen

erabileren isla osoagoa izango nuelakoan, bai kale gorrian soilik datuak biltzea, kopuru adierazgarri batean behinik-behin, askoz nekezagoa delako Aia bezalako herri batean, non herriguneak oso txikiak baitira, eta kaleko bizitza motela, urte sasoi batzuetan behintzat.

2.2.2 Aldagaiak

Datu bilketan, elkarrizketak neurtuko ditut; hizkuntzaz aldatzen badira elkarrizketa berritatz jotzen da, eta parte hartzaileak aldatzen badira ere bai. Aldagaiak hauek dira:

Lekuak. Kalean ez ezik, publikoak diren eta ausazko harremanak gerta daitezkeen beste lekuetan ere elkarrizketak jasotzea erabaki dut.

Hala, herrigune nagusian, kaskoan, hauek bereizi ditut: plaza nagusia, herriko gainerako kaleak, eliz ataria, jolastokiak, eskola ingurua, kirol guneak, dendak, tabernak (kanpoaldea zein barrua), elkarteak eta administrazioko zerbitzuguneak; beste auzoetan, kalea eta tabernak; eta Andatzan, jaigunea ere bai.

Eguna eta ordua. Gune bakoitzean gutxienez bi aldiz pasatzeko asmoz diseinatu dut datu bilketa, eta eguneko ordu ezberdinetan.

Sexua.

Adina. Lau adin multzo bereizi ditut: haurrak (2-14 urte bitartekoak), gazteak (15-24), helduak (25-64) eta adinekoak (65 urte edo gehiagokoak). Pertsonen itxuragatik saiaturiko naiz adina antzematen.

Haurren presentzia. Haurrak direneko elkarrizketetan, hiru motakoak bereizi ditut: hizketan soilik helduak ari direnak, helduak eta haurrak elkarrekin ari direnekoak, eta heldurik ez den haurren arteko elkarrizketak.

Jardungunea. Jardungune deitu dudanaren baitan bi aldagai bereizi ditut: Testuingurua batetik, zeinetan elkarrizketaren gaia edo xedea islatu nahi den, eta Harremana bestetik, elkarrizketan parte hartzen ari direnen harremana islatzeko. Bi aldagaiak kontuan izanda Jardunguneak ikusiko direlakoan nago.

López Moralesek '*contextos situacionales*' deitzen ditu:

'Los hablantes no se mantienen apegados a unos determinados patrones de actuación lingüística en todos sus actos comunicativos, actos —múltiples y variados— que tienen lugar en contextos situacionales también variados. La especificación de tales contextos está determinada por varios factores: las

características de los participantes, el escenario en el que interactúan, y el propósito de la comunicación' (2004:140).

Nire datu bilketarako hauek bereizi ditut:

- Testuinguruan: lana, zerbitzuak-taberna, zerbitzuak-beste, administrazioa, etxekoa, lagunartekoa, eskola, jolasa eta jaia.
- Harremanetan: familiakoa, profesionala, adiskideak, ikaskideak, zerbitzukoa.

Jatorria. Hipotesietan aipatu dudan Aiatik kanpoko enragina neurtzeko garrantzitsua iruditzen zait aldagai hau kontuan hartzea. Jakinaren gainean naiz Aiako guztiak ez direla euskaraz arituko aiar izate hutsagatik eta, aldiz, Aiatik kanpoko guztiak ez direla erdaraz arituko, baina uste dut jatorriaren eragina antzemango dela.

Lan honetarako, Aiatik kanpokotzat jo ditut Aian jaio gabeko eta Aiara hamar urte bete eta gero etorriak. Aiakotzat, beraz, kanpoan jaio arren, hamar urte betetzerako etorritakoak.

2.2.3 Lagina

Lagina kalkulatzeko Soziolinguistika Klusterrak egindako formula^x erabili dut (Yurramendi eta Altuna, 2009; Soziolinguistika Klusterra, 2011), non irizpide eta datu hauek hartzen baitira kontuan:

- Herriko biztanleria. Gure kasuan azken erroldaren arabera, 2.009 lagun.
- Harreman pertsonalen batez besteko tamaina. Soziolinguistika Klusterrekoek laginaren kalkulurako 291 erabiltzen dute balio estandar gisa, ezen kopuru hori ezartzeko egindako ikerketan ikusi dituzten azterketetan, 291koa delako harreman sare aktiboen batez besteko tamainatzat proposatzen diren balioen artean altuena, (Soziolinguistika Klusterra, 2011:55).
- Kalean gertatzen diren elkarrizketen solaskide kopurua; alegia, binakako, hirunakako edo talde handiagoetako elkarrizketen proportzioa. Aiako kasuan hiru elkarrizketa mota horien proportzioak berdinak izatea proposatzen dut, %33,3-koak.
- Hizkuntza gaitasuna; Aian euskal elebidunak %88 ziren 2011n.
- Konfiantza maila eta errore maila. Aiako kasurako %95 konfiantza maila balekotzat jo dut. 150 elkarrizketako lagina lortzen saiatzea erabaki nuen, eta horrek 6,69 puntuko errorea uzten du.

2.2.4 Laginaren banaketa

Neurketak soilik herrigune nagusietan egitea pentsatu dut:

- Kaskoaren gunearekin batera zenbatu ditut beste auzo hauek ere, kaskoa dutelako herrigune gertukoena: Kurpidea, Etxetaballa, Iru-retaegia, Laurgain, Arrutiegia eta Olaskoegia. Guztira —kaskoaren eta auzo horien artean— biztanleriaren %59 osatzen dute, eta beraz 88 elkarrizketako lagina.
- Urdanetako herrigunean egitea pentsatu dut Urdaneta bertakoak ez ezik Altzolako eta Elkanoko biztanleriari dagozkionak, beste bi auzo horietako gunek askoz txikiagoak direlako eta jendea biltzen duen zerbitzurik ez dutelako —taberna bat Elkanon—. Hiruren artean biztanleen %10 dira: 15 elkarrizketa.
- Andatza auzoko herrigunean egingo ditut gunek horretako eta haren inguruko baserriek dagozkienak. Guztira biztanleen %13 osatzen dute: 20 elkarrizketa.
- Santio auzoko herrigunean egingo ditut bertakoak, inguruko baserrietako biztanleei dagozkienak eta ondoko Arratola auzokoak, horretan ez delako etxebizitza multzoa besterik. Guztira biztanleen %19 osatzen dute: 29 elkarrizketa.

Lekuen atalean azaldutako banaketa kontuan hartuz erabaki dut elkarrizketak jasotzea. Horietan jardungune denak azalduko direlakoan nago, baina kale gorrian hain ohikoak ez diren testuinguruak propio bilatuko ditut: zerbitzuetakoak, eskolakoak, jolasekoak eta jai girokoak.

Adinen eta sexuen presentzia proportzionala lortzeari ez diot eman berebiziko garrantzirik, kalean ibiliko diren pertsonen portzentajeak ez direlako izaten biztanleriaren proportzio berdinekoak.

2.3 Behaketaren datu nagusiak

2.3.1 Behatutako elkarrizketa eta pertsona kopurua

Guztira 151 elkarrizketa entzun ditut, eta horietan 464 pertsona behatu; berdintsu gizon-emakumeak, eta ia hirutik bi, pertsona helduak, haurrak ere dezente, adinekoak beren neurrian eta gazte gutxi samar.

**Guztira 151
elkarrizketa
entzun ditut, eta
horietan 464
pertsona behatu;
berdintsu gizon-
emakumeak, eta
ia hirutik bi,
pertsona
helduak, haurrak
ere dezente,
adinekoak beren
neurrian eta
gazte gutxi
samar.**

Elkarrizketen bi heren inguru herriko kaskoan egin dira eta gainerakoak, berdintsu banatuta, beste hiru herrigune nagusietan: Andatzan, Santion eta Urdanetan.

Behatutako gehienak Aiakoak dira, baina Aiako ez direnen kopuru handia atera da baita ere: %44.


6. taula: Elkarrizketetan behatutako pertsona kopurua

Behatutako pertsona kopurua		
Adin taldeak	Kopurua	%
Haurrak (0-14)	98	21,12
Gazteak (15-24)	33	7,11
Helduak (25-64)	270	58,19
Adinekoak (>64)	63	13,58
Sexuak		
Emakumeak	247	53,23
Gizonekoak	217	46,77
Guztira pertsonak	464	
Elkarrizketa kopurua	151	

43 elkarrizketatan egon dira haurrak presente, eta horietarik hamabi elkarrizketa jaso ditut non haurrak bakarrik ziren pertaide.

7. taula: Haurrak elkarrizketetan

Haurren presentzia	Elkarrizketak	%
Haurrik ez	108	71,52
Haurrak bai	43	28,48



Elkarrizketen bi heren inguru herriko kaskoan egin dira eta gainerakoak, berdintsu banatuta, beste hiru herrigune nagusietan: Andatzan, Santion eta Urdanetan.

Behatutako gehienak Aiakoak dira, baina Aiako ez direnen kopuru handia atera da baita ere: %44.

8. taula: Elkarriketen banaketa eta pertsonen jatorria


Elkarriketa lekuak eta pertsonak jatorriaren arabera				
Lekua	Elkarriketak		Pertsonak jatorriaren arabera	
	Kopurua	Pertsonak	Aiakoak	Ez Aiakoak
Kaskoa, beste kaleak	24	68	48	20
Kaskoa, administrazioa	1	2	1	1
Kaskoa, dendak	11	23	14	9
Kaskoa, eliz ataria	3	12	12	0
Kaskoa, elkartea	4	17	10	7
Kaskoa, eskola ingurua	6	16	13	3
Kaskoa, jolas parkea	22	65	37	28
Kaskoa, kirol gunea	2	9	7	2
Kaskoa, plaza	16	55	42	13
Kaskoa, tabernak	8	24	21	3
Kaskoan guztira	97	291	205	86
%	64,24	62,72	70,45	29,55
Santio, aretoak	13	37	11	26
Santio, kalea	4	18	10	8
Santion guztira	17	55	21	34
%	11,26	11,85	38,18	61,82
Andatza, aretoak	5	20	4	16
Andatza, jaigunea	9	27	4	23
Andatza, kalea	5	19	13	6
Andatzen guztira	19	66	21	45
%	12,58	14,22	31,82	68,18
Urdaneta, aretoak	6	19	5	14
Urdaneta, kalea	12	33	8	25
Urdanetan guztira	18	52	13	39
%	11,92	11,21	25	75
Guztira	151	464	260	204
%			56,03	43,97

Elkarriketen erdietan baino gehiagotan *lagunarteko* testuingurua agertu da, eta gainerakoak nahikoa banakatua daude. Azterketarik egin ahal izateko adina elkarriketa ez ditugu entzun tabernako zerbitzuetakoak (zerbitzuari buruz hizketan), eta ezta ere administrazioko zerbitzua xede zutenak.

Tabernetako zerbitzuko hizkuntza erabilera asko erregistratu ez bada ere, haietan —bai barruan, bai kanpo aldean— izandako elkarriketak jaso ditut, eta beraz, pentsatzen dut giro horretako emaitza nahikoa ondo jaso izango dela. Administrazioako jasotzeko modurik ez da izan.


Etxekoa deitu dudan testuinguruan etxeko kontuez edo familiakoez ari zirenen elkarriketak jaso ditut. *Lanekoa* deituak ere bai, leku publikoan —ez lantoki barruan—, baina laneko kontuez ari zirela. *Eskolakoa* deitutako testuinguruan eskolako kontuez ari zirenak bildu ditut, batez ere eskola inguruan, umeen zain zeuden gurasoen artean, eta jolasparkean, eskolatik atera ondoko haur-gurasoen egonaldian.

Testuinguru horietan erregistratu ditudan pertsona gehienak adiskideak ziren (109 elkarriketatan); beste hainbat familiako harremana dutenak (24). Harreman profesionalekoak gutxi jaso dira (4), pentsatzekoa zenez, eta zerbitzuko harremanekoak gehixeago (13).




2.3.2 Aurreikusitakoarekin aldeak


Adin talde gehienetako elkarriketetan nahikoa ondo islatu da biztanlerian duten pisua.



Gizon-emakumeen arteko proportzioak ez dira bete (%6ko aldea):




Aurreikusitako lekuetan ezin izan ditut elkarriketak egin pentsatu bezala: kaskoan, Andatzen eta Urdanetan nahikoa ondo jaso ditut, eta aurreikusi baino gehixeago atera arren —kaskoan eta Urdanetan— emaitza isla izugarrik izango ez duelako, mantentzea erabaki dut. Kontrakoa Santion gertatu zait (28tik 17).



3 BEHAKETAREN EMAITZAK ETA DATUEN ANALISIA

3.1 Emaita orokorrak eta aldagaien arabekoak

Aiako kaleetan eta behatutako eremu publikoetan euskaraz hitz egiten da gehienbat, baina nahikoa nabarmena da gaztelaren presentzia: %23,84 gaztelera hutsez, eta beste puska eder bat (%11,26) kode aldaketa eginez. Elkarriketa bakarra entzun dut beste hizkuntza batean, arabieraz-edo¹¹.




3.1.1 Auzoen arteko aldeak

- Kaskoan egin dira elkarriketa gehienak (hirutik bi) eta horietan islatzen dira zuzenen emaitza orokorrak. Aipagarria da, hala ere, kode aldaketa elkarriketa askotan jaso dugula kaskoan (%14,43).
- Badira aldeak auzo batzuetatik besteetara:
 - Andatzen eta Urdanetan oso emaitza antzekoak agertu dira, %84 inguru euskaraz, eta %10-11ren bueltan gaztelaraz; kode aldaketa gutxiago, soilik %5 pasatxo.

Aiako kaleetan eta behatutako eremu publikoetan euskaraz hitz egiten da gehienbat, baina nahikoa nabarmena da gaztelaren presentzia: %23,84 gaztelera hutsez, eta beste puska eder bat (%11,26) kode aldaketa eginez. Elkarriketa bakarra entzun dut beste hizkuntza batean.


Datuek erakusten digute lagunarteko elkarriketa informaletan erraz egiten dela gaztelaraz (%28,4—) batez bestekoa baino gehiago entzun dut gaztelaraz etxekoa deitu dudan testuinguruan ere (%25), non bildutako elkarriketetan gehienak familiak diren, eta gehiago diren kanpokoak Aiakoak baino.

- Santion emaitzak, erabat ezberdinak: elkarriketa gehiago entzun ditut gaztelaraz (%52,94) euskaraz baino (%41,18).



3.1.2 Gaztelera gehien, lagunarteko testuinguruan

Datuek erakusten digute lagunarteko elkarriketa informaletan erraz egiten dela gaztelaraz (%28,4—) batez bestekoa baino gehiago entzun dut gaztelaraz *etxekoa* deitu dudan testuinguruan ere (%25), non bildutako elkarriketetan gehienak familiak diren, eta gehiago diren kanpokoak Aiakoak baino; gainerako testuinguruetan nabarmen altuagoak dira euskaraz ari direnen portzentajeak, bi salbuespen direla: lanekoan —gaztelaraz %28—, eta zerbitzuetaoan, ia laurdenak egin baitu kode aldaketa.




3.1.3 Adinaren arabera


Ikusi ditut adinaren arabeko aldeak, batez ere haurrak izan ala ez, baina badira aldeak gainontzeko taldeen artean ere. Gazteen elkarriketetan^{xii} oso nabarmen egiten dute gehienek euskaraz. Adinekoak ere batez bestekoaren gainetik dabilta euskaraz, ia hiru laurden, eta soilik

%7 kode aldaketa egiten.

Helduen artean entzun ditugu erdarazko produkzio gehienak. Talde horretakoak dira guztira behatutako hamar lagunetik sei, eta horietatik %28,69k egin du erdaraz, beste ia %14k kode aldaketa.



Haurrak izan ala ez, 11 puntuko aldea da euskararen eta gazteleraren erabileran, haurrak dauden elkarrizketetan gehiago; kode aldaketaren produkzioak antzekoak dira kasu bietan, %11.




Haurren artean ia erabat euskaraz hitz egiten entzun dut (%91,66), eta ez dut entzun kode aldaketa egiten zuteneko kasurik batere. Gazteleraz entzundako elkarrizketa bakarrean dramatizazioa egiten ari ziren jola-sean: ‘*Ya estoy muerto...*’. Haurren eta helduen arteko elkarrizketetan ere batez bestekoa baino askoz altuagoa da euskararen erabilera (%77,77) eta soilik %5,55 gazteleraz. Aldiz, haurrak presente egonagatik, elkarrizketan era aktiboan parterik ez dutenean, asko entzun dut gaztelaniaz (%38,46), euskaraz baino gutxiago, baina ez askoz gutxiago.

Gazteen elkarrizketetan oso nabarmen egiten dute gehienek euskaraz. Adinekoak ere batez bestekoaren gainetik dabilta euskaraz, ia hiru laurden, eta soilik %7 kode aldaketa egiten.

Helduen artean entzun ditugu erdarazko produkzio gehienak. Talde horretakoak dira guztira behatutako hamar lagunetik sei, eta horietatik %28,69k egin du erdaraz.


Aldeak ikusi ditut sexuaren araberako bereizketa eginez gero. Elkarrizketan bi sexueta pertsonak egon direnean, batez bestekoen oso antzeko emaitzak dira. Aldiz, gizonezkoen arteko elkarrizketetan puskaz altuagoa da euskaraz ari direnen portzentajea (%71 pasa) soilik emakumeen artekoetan baino (%59).



3.1.4 Gizonezkoak gehiago euskaraz


Aldeak ikusi ditut sexuaren araberako bereizketa eginez gero. Elkarrizketan bi sexueta pertsonak egon direnean, batez bestekoen oso antzeko emaitzak dira. Aldiz, gizonezkoen arteko elkarrizketetan puskaz altuagoa da euskaraz ari direnen portzentajea (%71 pasa) soilik emakumeen artekoetan baino (%59).

Kode aldaketa gutxi jaso diet gizonezkoek (%8 eskas) eta batez bestekoa baino arras gehiago emakumeak soilik diren elkarrizketei (%18).



3.1.5 Jatorriaren araberako emaitzak

Aldagai honengatik ikusi dut alde handiena: Aiatik kanpokoen arteko elkarrizketetan gehiago dira beren artean erdaraz egiten dutenak euskaraz egiten dutenak baino (%50 eta %41, hurrenez hurren). Aitzitik, soilik Aiakoak daudeneko elkarrizketetan oso zabala da euskararen erabilera (%84).



3.2 Emaiza nagusien analisisa

3.2.1 Lekuaren eragina

Kaskoan islatzen dira zuzenen emaitza orokorrak, elkarrizketa gehienak ere bertan eginak direlako, besteak beste.

Andatzan eta Urdanetan oso antzekoak dira emaitzak, baina tentuz hartuko ditut, nolana: auzo bien artean badirelako diferentzia soziologikoak, eta elkarrizketa gutxi direlako.

Santion egon daitezke arrazoiak gaztelaniaz gehiago entzuteko:

- Bertako baserritarrak erabat dira euskaldunak, baina herrigunean bizi dira erdaldun bakar batzuk ere.
- Orion bertan daude ia —Arratola ondo-ondoan eta Santio kilometro batera—, eta asteburuetan-eta nabari da kanpoko jendea ibiltzen dela, pasieran eta bertako bi taberna-jatetxeetan.
- Tabernetako batean erdaldunak dira jabe berriak.

3.2.2 Testuinguruaren eragina

Salbu eta *lagunartekoan*, gainerako testuinguruetako elkarrizketak gutxiegi dira beharbada ganorazko ondorioz ateratzeko. Lagunarteko elkarrizketa informalean batez bestekoaren gainetik daude gaztelaniazko elkarrizketak, baina aldea bost puntukoa baino ez da.

Laneko testuinguruan ere %28 dira gaztelaniaz ari direnak. Eta zerbitzuetaoetan esanguratsua iruditzen zait kode aldaketa asko egiten dela, ia elkarrizketen laurdenetan, baina ez dut uste kasu honetan ere nahikoa elkarrizketa direnik ondorio handirik ateratzeko.

Aldagai honengatik ikusidut alde handiena: Aiatik kanpokoan arteko elkarrizketetan gehiago dira beren artean erdaraz egiten dutenak euskaraz egiten dutenak baino (%50 eta %41, hurrenez hurren). Aitzitik, soilik Aiakoak daudeneko elkarrizketetan oso zabala da euskararen erabilera (%84).

Gazteen artean ia soilik euskaraz entzun dut. Eta nahiz elkarriketa gutxi izan, emaitza aipagarria da. Gazteen elkarriketa horietan proportzio orokorrean baino askoz gutxiago dira Aiatik kanpokoak.

3.2.3 Adinaren eragina

Eragin handiena haurrena da; ohargarria da ikustea haurrak direneko elkarriketen soilik %16an egiten dela gazteleraz.

Gazteen artean ia soilik euskaraz entzun dut. Eta nahiz elkarriketa gutxi izan, emaitza aipagarria da. Gazteen elkarriketa horietan proportzio orokorrean baino askoz gutxiago dira Aiatik kanpokoak.

Helduen artean gaztelaniaz ari direnen portzentajea handiagoa da, esan bezala, datu orokorra baino ia bost puntu altuagoa, eta baita kode aldaketarena ere, hiru puntu altuagoa. Eta gazteen artean ikusi dugunaren kontrakoa gertatzen da, alegia, Aiatik kanpokoan portzentajea orokorrean behatutakoa baino nabarmen handiagoa da helduen artean.

Beste datu ohargarria helduen artean: kode aldaketa egiten den elkarriketa ia guztietan daude helduak.

Adinekoen artean handiagoa da euskaraz ari direnen portzentajea. Egon daiteke hemen ere jatorriaren eragina, ezen gaztelaniaz ari diren adinekoen elkarriketa guztietan baitira presente ez Aiakoak.

3.2.4 Sexuaren eragina

Badirudi argi dagoela sexuaren nolabaiteko eragina, elkarriketan soilik sexu berekoak direnean ikusten dena, batez ere. Hala, soilik gizonak bada dira elkarriketan, emaitza orokorrean baino zazpi puntu gehiagok egiten dute euskaraz, eta, alderantziz, soilik emakumeak diren elkarriketatatan bost puntu gutxiago dira euskaraz ari direnak emaitza orokorrean baino. Bien arteko aldea esanguratsua dela iruditzen zait, 12 puntukoa.

Aldea argia da kode aldaketaren erabileran ere sexuaren arabera: emakumeen bikoitzak baino gehiagok egiten duelako —%18; eta gizonak, %8—. Bestetik, kode aldaketa egiten den elkarriketen %53an daude gizonezkoak eta, aldiz, %82an daude emakumezkoak, alegia, elkarriketa horien %18 dira gizonezkoak beren artean soilik ari direnekoak eta %47 emakumeak beren artean ari direnekoak.

3.2.5 Jatorriaren eragina

Oso adierazgarria iruditzen zait gaztelaniaz gehiago egitea euskaraz baino elkarriketan soilik Aiatik kanpokoak direnean. Eta, kontrara, nahikoa handia da euskaraz egiten dutenen portzentajea Aian jaiotakoen arteko elkarriketetan, %84.

3.2.6 Aldagai eraginkorrenak

Datuek erakusten dute badutela beren eragina bai adinak, bai sexuak eta baita, argiago, jatorriak ere. Aipatu dut, halaber, lekuaren arabera aldeak badirela.

Elkarrizketa kopuru esanguratsuan alde handienak eragin dituzten aldagaiak erakutsi ditudan azken biak dira, gizon-emakumeen arteko aldeak eta jatorriaren arabera.

Adinaren eragina tentu handiagoz aztertu beharrekoa iruditzen zait; egia izanda ere helduen artean joerak bestelakoak direla (kode aldaketa gehiago eta erdaraz gehiago), gainerako adin taldeetako multzoak txikiak dira ondorio handiak ateratzeko.

Dauzkagun datu apurrekin nekeza da ondo aztertzea jardunguneen eragina. Ikusi dugu lagunarteko solasaldi informaletan batez bestekoa-
ren azpitik dagoela euskararen erabilera, baina alderaketa ona egiteko hobeto xehatu beharko lirатеke bai testuinguruak —elkarrizketaren xedeak—, bai pertsonen arteko harremanak; eta, jakina, jardungune bakoitzetik elkarrizketa kopuru altuagoak eta berdintsuak beharko lirатеke alderaketak fundamentuz egiteko.

3.3 Alderaketa zenbait

Kale erabileraren datuak behar bezala aztertu eta alderatu ahal izateko beharrezkoa da informazio diakronikoa izatea, bilakaerak ikustea. Lehen ere aipatua dudanez, Aian ez dugu aurreko daturik ezagutzen eta ezin egin dezakegu datuon alderaketatik aurreko batzuekin. Interesgarria zatekeen, herriaren deskribapeneko atalean ikusi dugun hizkuntza gaitasunean, euskararen etxeko erabileran eta euskararen transmisioan izaten ari den beherakadak kale eta leku publikoetako erabileran ere eraginik baduen aztertzeko.

3.3.1 Etxeko hizkuntza eta kale erabilera

Egin dezakegu alderaketa etxeko —eta lagunarte informaletako— erabilera aitortuaren datuekin¹³. Baina kontuz egin beharreko alderaketa da, ezen aitortua da hura eta behatua gurea, eta gainera, aldagai ezberdinak dira bi neurketetan: etxeko erabileraren neurketan euskaraz, gaztelaraz, bietan edo besteren batean egiten den galdetzen da; ez da kode aldaketarik itauntzen, eta nire azterketa honetan, bai.

Nolanahi den, alde handiena aitortua izatean datza, izan ere, hainbat ikerketak erakutsi dutenez (Iurrebaso, 2012), norberak aitortzen duena

**Soilik gizonak
badira
elkarrizketan,
emaitza
orokorretan
baino zazpi
puntu gehiagok
egiten dute
euskaraz, eta,
alderantziz,
soilik
emakumeak
diren
elkarrizketatan
bost puntu
gutxiago dira
euskaraz ari
direnak emaitza
orokorretan
baino. Bien
arteko aldeak
esanguratsua
dela iruditzen
zait, 12
puntukoa.**

ez da beti bat etortzen erabilera errealekin. Etxeko euskararen erabilera eta kale behaketetan azaleratua alderatu zuen Iurrebasok, eta ia %30eko aldea egon daitekeela ondorioztatu zuen (2012: 98).

Aian %74k dio euskaraz egiten dutela etxean, eta beste %7k bietan egiten dutela (2011). Euskararen kale erabilera apalagoa dela ikusi dugu (%64).

Alderaketan, joera hori beste herrietan ere antzera izaten den ez dakigu, herriz herriko kale erabileraren datuak oso bakanak direlako¹⁴. Aiaren inguruan Zarauzko eta Zestoako datuak ditu bilduak Soziolinguistika Klusterrak, 2011ko Hizkuntzen Kale Erabileraren VI Neurketaren baitan; neurketa horietan, baina, ez da kode aldaketaren produkzioerik jasotzen, eta beraz ondorio handirik ezin atera. Datuok agertzen dira, nolana:

- Zarautzen: a) Etxeko hizkuntza: euskaraz, %41 eta bietan, %15; b) Kanean, %50 euskaraz.
- Zestoan: a) Etxeko hizkuntza: euskaraz, %67 eta bietan, %8; b) Kanean, %80 euskaraz.
- Herri bietan handiagoa da kale erabilerako datua etxekoa baino, eta Aian alderantziz. Urola Kostan, etxean %54k egiten du euskaraz eta %11k bietan, eta kanean %71,5k euskaraz. Gipuzkoa mailako datuetan ere Aian ez bezalako joera agertzen da kale erabileraren eta etxeko hizkuntzaren arteko alderaketan: etxean, %26k euskaraz eta %11k bietan egiten du Gipuzkoan, eta kanean %32,7k euskaraz.

Dena den, esan dudan legez, bide laburra du kale erabileraren beste eremuetako datuekin egin daitekeen alderaketak: batetik, horietan kode aldaketa ez delako jasotzen, baizik eta gehien bat euskaraz edo gehien bat erdaraz ari diren; eta bestetik, soilik kanean egindako neurketak direlako, eta ez, Aian bezala, kanean eta beste leku publikoetan.

3.3.2 Euskara gaitasuna eta kale erabilera

Oinarri teorikoen azalpenean eta hipotesien planteamenduan aipatu dudan bezala, hizkuntzen kale erabileran eragin handia dute sare sozialek eta gizarte egiturak, norbanakoaren ezaugarriez gainera.

Isasik dio euskararen ageriko erabilera, oro har, euskaldunen proportzioaren eta hizkuntza komunitatearen trinkotasunaren funtzio zuzena dela, eta *'kasurik onenean, erabilera erabateko leialtasunaz eta bikoteka gauzatzen denean, hizkuntza gutxiagotuaren goren mailako erabilera tasa elebidunen proportzioaren berredura besterik ez litzateke izango'* (Isasi eta Iriarte, 1998).

Txillardegik (1994, 2001) gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egin zuen. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero — ‘euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero’ — eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero —egoera isotropikoa—, zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri ‘*espero daitekeen erabilera, edo erabilera isotropikoa*’ esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Formula hau proposatu zuen Txillardegik: $P_B = m_B (W_2e_X^2 + W_3e_X^3 + W_4e_X^4)$, non,

P_B = euskararen erabilera maila

m_B = euskararekiko leialtasuna

e_X = elebidunen proportzioa

W_2 = bikoteen pisua

W_3 = hirukoteen pisua

W_4 = laukoteen pisua

Euskararekiko leialtasunari (m_B) ‘*euskara erabiltzeko joera*’ deitzea erabaki zuen Soziolinguistika Klusterrak (2011), baina, nolanahi, formula horretan kontuan ez hartzea proposatu zuen, eta ‘*zorizko fenomeno bezala*’ hartzea (2011:55); ‘*euskara erabiltzeko joeraren fenomeno sakabanaketa handikoa eta ezegonkorra*’ dela ondorioztatu zuten (2011:34).

Beraz, Aiako datuak kontuan izanda, honela geratuko zaigu formula:

$$P_B = 1 (W_2e_X^2 + W_3e_X^3 + W_4e_X^4) = 0,43*(0,88)^2 + 0,28*(0,88)^3 + 0,29*(0,88)^4.$$

$P_B = 0,69$, alegia, ehunetik 69k euskaraz egingo lukeela espero daitekeela Aiako hizkuntza gaitasunean oinarrituta; neurketa honetan ikusi dugun %64k baino gehiagok, alegia. Horrek esan nahi du, aldea handia ez bada ere, euskaldunek ez dutela euskaldunekin euskaraz egiten horretarako aukera duten guztietan.

4 ONDORIOAK

I

4.1 Ondorio nagusiak

4.1.1 Laurdenak gaztelaniaz

Behaketa honetan, kalean eta leku publikoetan soilik %64 pasatxok egin du euskaraz; eta horren ondoan, beste datu ohargarri bat, %11tik gora

2001-2011 tarte horretan berean, hizkuntzen etxeko erabileran gaztelania %5tik %17ra egin du, eta kontrara, euskarak %92tik %74ra.

***Aiako gazteek
eusten diote Aian
euskaraz egiteari,
arrotz egiten da
gaztelania euren
artean Aiako
kaleetan.***

dira kode aldaketa egin dutenak. Tamalez, ezin konpara daitezke datuok hizkuntzen kale erabilerako besterekin, Aian horrelako azterketarik ez delako egin orain aurretik, baina ia hamarretik bederatzi (%88) euskaldunak dituen herri baterako, emaitza esanguratsuak direlakoan nago, eta egiten nuen lehen hipotesia berresten dutelakoan, alegia, mintzaldaketaren zantzuak badirela, portzentaje handian egiten delako gaztelaniaz Aiako kale eta leku publikoetan, eta ez delako ikusten euskararen ia erabateko erabilerarik.

Ikusi dugu baita ere euskara gaitasunak azken hamar urteetan atzerako bilakaera izan duela Aian: erdaldunak %1 izatetik %6 izatera pasa dira; jauzi handia delakoan nago. Hala berean, 2001-2011 tarte horretan berean, hizkuntzen etxeko erabileran gaztelaniak %5tik %17ra egin du, eta kontrara, euskarak %92tik %74ra. Eta hirugarren datu esanguratsua: Aiako biztanleen %5en lehen hizkuntza zen gaztelania 2001ean eta hiru aldiz gehiagorena 2011n, %15ena.

Soziolinguistika Klusterrak berriki argitaratu duen lanak (Iurrebaso, 2015) erakutsi duena oso koherentea da Aiako datu horiekin. Azaldu dute Euskal Autonomi Erkidegoko udalerri euskaldunetan atzera egin duela euskara gaitasunak nabarmen hamar urtean (2001-2011); erakutsi du atzera egin duela euskararen erabilerak etxean, eta erakutsi du atzera egin duela lehen hizkuntzaren transmisioak udalerri horietan.

Uste dut hiru adierazle horiek Aian izan duten bilakaeraren oso bestelakoa ez zela izango hemen neurtu dudana kale eta leku publikoetako erabilerarena; alegia, oso litekeena dela erabileran ere atzera egin izana. Lan honetatik, baina, ezin daiteke besterik gabe hori ondorioztatu, erabileraren aurreko daturik ez delako.

4.1.2 Gazteak euskaraz

Datuak xehatuta erraz antzematen da adinak baduela eragina hizkuntzen erabileran, lehen, datuen analisisan, aipatu dudanez. Hemen, gazteen euskararen erabilera nabarmendu nahi nuke, eta egin dudana bigarren hipotesia gezurtatu egin dela esan, ezen oso portzentaje altuan (%84,6) entzun ditugu euskaraz gazteak. Aiako gazteek eusten diote Aian euskaraz egiteari, arrotz egiten da gaztelania euren artean Aiako kaleetan.

Hirugarren hipotesian nioen kanpora gehien irekita dauden biztanleen artean antzemango zela lan harreman berrien, eta informazio eta komunikazio teknologia berrien eragina. Aurreko paragrafoan aipatu dut

gazteen artean ez dela halakorik ikusi, baina uste dut gaztelaniaren erabilera handiena dutenak, ikasten edo lan egiten Aiatik kanpo denbora gehien ematen duten helduen artean ditugula, hain zuzen helduen artean gaztelaniaz %28,6 entzun baititut eta kode aldaketa egiten ia %14. Datuak adierazgarriak direlakoan nago gainera, elkarrizketa guztien hiru laurden pasatxo adin talde horren presentzia dutenak direlako. Halaber, hipotesia berretsi duelakoan nago haurren artean eta adinekoen artean euskararen erabilera maila altuak ikusteak, pentsa daitekeelako horiek izango direla Aiatik gutxien irtengo direnak.

Laugarren hipotesian planteatu dut egoera sozioekonomiko berriaren eragina —etxebizitza berriek eta immigrazioak eragindakoa, batez ere— gehiago nabarituko zela giro jakin batzuetan. Uste dut zaila dela hori horrela baieztatzea:

- Egia da euskararen erabilera portzentaje txikiagoak direla guraso gazte gehien ibiltzen den eskola inguru eta jolastokian, baina elkarrizketa gutxitxo entzun ditut eskola inguruan, ondorio handirik ateratzeko; jolastokian elkarrizketa gehiago entzun ditut, eta beraz, ondorio argiagoak atera litezke beharbada: euskaraz soilik %50 entzun dut eta gaztelaniaz %36 pasa. Hor, badirudi baieztatu daitekeela hipotesia.
- Egoera sozioekonomiko berriekin sortzen ari diren harreman sare berrien eragina batez ere kaleko lagunarteko eta jai giroko testuinguruetan antzemango zelakoan planteatu nuen hipotesi hau. Hau da, taberna inguruetako giroan ere nabarituko zela Aiara kanpotik etorritako jendearen eragina, kalean gehien ibiltzen diren gazte eta heldu gazteak direlako. *Lagunarteko* testuinguruko gisa identifikatutako elkarrizketetan batez bestekoaren azpikoa da euskararen erabilera (%58), baina, aldiz, jai giroko testuinguruan, ez (%80 euskaraz). Kaskoko elkartearen erdiak dira euskaraz eta erdiak gaztelaniaz, baina elkarrizketa gutxi dira; Santioko tabernetan %38 bakarrik entzun dut euskaraz, baina kasu honetan auzoaren ezaugarriek pisu handiago dutelakoan nago.

4.1.3 Haurren eragina

Bosgarren hipotesia bete dela esango nuke, haurrak tartean direneko elkarrizketen %72n egiten delako euskaraz, eta haurrik gabekoetan, %61en. Datuen analisisan azaldu legez, oso nabarmena da haurrek ia erabat egiten dutela euskaraz, eta haiekin ari direnean ere helduek gehiago egiten dutela argi dago: haurrak eta helduak elkarrekin ari diren saioetan %78 dira euskaraz. Alabaina, haurren eraginaren zalan-

Oso nabarmena da hurrek ia erabat egiten dutela euskaraz, eta haiekin ari direnean ere helduek gehiago egiten dutela argi dago: haurrak eta helduak elkarrekin ari diren saioetan %78 dira euskaraz.

**Emakumeek
gehiago egiten
dute kode
aldaketa oso
nabarmen, eta
argi samar
ondorioztatu
daiteke baita ere
helduek egiten
dutela; haurrek,
ez, eta gazteen
eta adinekoen
artean, apenas.**

tzazkoa agerian uzten duen datu bat ere bada, izan ere, haurrak presente egonagatik helduak soilik ari direnean hizketan euskaraz erdietan baino gutxiagotan entzun dugu. Gutxi dira kasu horretako elkarriketak, baina joera hori erakusten dute. Alegia, nahiz eta haurrak egon, helduak beren artean ari direnean agian ez dituztela haurrak kontuan hartzen hizkuntz hauturako.

4.1.4 Kode aldaketa handia

Azken hipotesian planteatu dudan kode aldaketaren presentzia handia berretsi egin dute datuek: %11,26.

Lehen esan dudanez, emakumeek gehiago egiten dute kode aldaketa oso nabarmen, eta argi samar ondorioztatu daiteke baita ere helduek egiten dutela; haurrek, ez, eta gazteen eta adinekoen artean, apenas.

Ikertu egin behar da nola egiten den eta zergatik egiten den, baina argi dago Aian ere baieztatu daitekeela hizkuntz hautuaren emaitzarik nabarmenetakoa dena (Etxebarria, 2014).

Argi dago kode aldaketa egiteko ondo menperatzen direla bi sistemak, baina zalantza egiten dut: a) Kode aldaketa egiteak, luzaroan egiteak eta asko egiteak ez ote dion eragin handiagoa egingo hizkuntzarik ahulenera —‘*mendekotasun sintomatza*’ jotzen zuen Coyosek (2010)—; b) Berreziki, ez ote duen eragotziko euskaren erabilera hizkera informalean —kode aldaketa aldaera herrikoia goetan errazagoa erabiltzen dela zioen Rotaetxe (1999)—; eta c) Ez ote duen zailduko Aiatik kanpokoaren parte hartzea bertako hizketa erkidegoan, nekezago erabiltzea bertako euskara bizia hala eskatzen duen testuinguruetan, lagunarteko elkarriketa informalean esate batera, eskura dutelako kode aldaketaren makulua.

Horiek, dena den, ikerketa sakonagoek argitu beharko lituzketen galderak dira.

4.1.5 Aiatik kanpokoaren emaitzak

Oso dira ezberdinak euskaraz egiten dutenen portzentajeak jatorriaren arabera: kanpokoaren artean %41 euskaraz eta Aiakoaren artean %84. Beraz, antzematen da jatorriaren eragina. Bada pista bat erakuts diezagukeena Aiako hizkuntzen erabileraren arrazoietan eragileetako batzuk zein izan daitezkeen.

Ez askoz gehiago, ordea. Ez dut uste alderdi honetan foku handiegirik jarri behar dudarik, Aian bertan jaio ala Aiatik kanpo jaio, inkestan be-

hatutakoak aiarrak direlako¹⁵ eta horiek osatzen dutena delako Aiako erkidegoa.

4.2 Sortutako arazoak

4.2.1 Elkarrizketa kopurua

Guztira 151 elkarrizketa direla, oso nekeza da aldagai bakoitzaren aldaera bakoitzaren kopuru adierazgarriak izatea. Eta horrek asko mugatzen du behar bezalako ondorioak ateratzea.

Hori gertatzen da, esate batera, Santio auzo egoera aztertzeke. Uste dut nik behatutako hango elkarrizketak oso direla baliotsuak argiak pizteko, eta Santioko hizkuntz erabilera nolakoa den hobeto ikertzeke eta arrazoieta sakontzeke, baina ez dutela balio bere horretan ondorio handiagorik ateratzeko.

4.2.2 Adin tarteen definizioa

Iruditzen zait Aiakoa bezalako errealitate soziolinguistikoa zehatzago deskribatzeko egokiagoa zatekeela beste adin tarte bat sortzea heldu gazteen artean, 25-40 inguru horretakoaren produkzioak bereizita jasotzeko. Iruditzen zait tarte horretakoak direla azken urteetan Aiara bizitzera etorritako asko, tarte horretakoak direla ezkontza misto asko eta tarte horretakoak harreman handian bizi direla Aiatik kanpoko beste sare batzuekin, internetekoak barne.

4.2.3 Zerbitzuetako hizkuntzak

Lan honetan gutxitxo lortu ditut zerbitzuetako hizketa erakutsiko duten elkarrizketak. Egon naiz tabernetan, botikan, herriko denda nagusian, posta bulegoko harreran eta udaletxeko harreran, baina komeniko zen barruan izatea jardungune horietako emaitzak hobeak izateko.

4.3 Galderak eta geroiko ikerlerroak

Lan honen emaitzen argitara uste dut badirela mahai gainean gelditzen diren hainbat galdera, beste lan batzuekin erantzuten saiatu beharrekoak.

Nagusiak, bi direlakoan nago: azterketa berretsi eta joerak ikustea, eta arrazoiak ikertzea.

Uste dut bi erako ikerketak egin daitezkeela: a) Kuantitatiboak: hizkuntzen erabileraren neurketa orokorrak, auzoetako neurketak, jardun-

Oso dira ezberdinak euskaraz egiten dutenen portzentajeak jatorriaren arabera: kanpokoaren artean %41 euskaraz eta Aiakoaren artean %84.

gune jakin batzuetako datuak sakonago ezagutzekoak, hizkuntza bakoitza zeinetan erabiltzen den eta zeinetan ari den erabilera galtzen; eta b) Kualitatiboak: arrazoieta sakontzekoak eta hizkuntzen erabilerak baldintzatzen dituzten faktoreak oro ezagutzeko, hizkuntza kontzientziaren ingurukoak, hizkuntzen prestigioari buruzkoak, erdaren sartzeko bideen gainekoak, kanpoko eraginetan sakontzeko, Aiatik kanpokoan iritziak ezagutzeko, erabiltzen diren hizkerak identifikatzeko eta ikeritzeko, eta agian jardungune jakin batzuetako —zerbitzuetako hizkuntza erabilerak, esatera— jarduera hobeto ezagutzeko.

Bereziki begiratu beharko litzazieke, nire iritzian:

- Kode aldaketari: lan honetan jasotako emaitza berresteko, nork eta zertan egiten duten ikusteko eta nolakoa den aztertzeko.
- Santio auzoko egoerari: lehen esan bezala, gaztelania gehiago egiten den eremu bakarra hori agertu zaidalako. Uste dut hori berretsi egin behar dela azterketa gehiagorekin, eta berresten bada, arrazoieta sakondu eta egoerari aurre egiteko neurriak aztertu. ●

OHARRAK

1. 2015eko ekainean Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterrean Maitena Etxebarraren zuzendaritzapean egindako lanaren laburpena
2. Oinari teorikoen atala ez da jaso lanaren laburpen honetan.
3. Hizkuntza gaitasuna ezagutzeko inkestetan bi urtetik gorako biztanleak baizik ez ditu kontuan hartzen EUSTATEk.
4. EUSTATEn definizioen arabera, ia-euskaldunak gai dira euskara ulertzeko, baina ez euskaraz egiteko.
5. Irakurri eta idatzi nekez egiten zutenak.
6. Soziolinguistika Klusterraren definizioaren arabera, *udalerrri euskaldunak* zera dira: euskaldunen portzentajea gehi ia-euskaldunen portzentajearen erdia, %70 edo gehiago denean (*Udalerrri euskaldunak EAEn: Egoera eta bilakaera*, 1981-2011, 2014).
7. Aizarnazabal, Asteasu, Errezil, Getaria, Orio eta Zestoa.
8. Euskotrenen tren zerbitzua bada Aia-Orioko geltokian; berez Aiako lurretan —Arratola auzoan— badago ere, Orioko herrigunearen ondoan dago, Aiako kaskotik hamar kilometroa.
9. Hemen aipatzen ditudan hauek guztiak 2014-2015 ikasturteari dagozkionak dira.
10. <http://www.soziolinguistika.eus/lagina/eskaera/kale-erabilera>.
11. Ez ditut bereizten arabiera eta amazighera.
12. Gazteak presente zireneko elkarrizketak dira jasotakoak, ez derrigor soilik gazteen artekoak —nahiz eta gehienak hala diren—, beraz litekeena da gazteak ez beste ere aritzea elkarrizketa horietan. Oharrak berdin balio du helduen eta adinekoen taldeentzako ere.
13. Inkesta Soziolinguistikoa (2011).
14. Euskal Herriko inkesta egiteko herri askotako datuak biltzen ditu Soziolinguistika Klusterrak, baina, berak aitortua duenez, herri bakoitzean egiten den behaketa kopurua ez da esanguratsua herri horretako erabilera zenbatekoa den jakiteko. Salbuespenak hiriburuekin eta herri jakin batzuekin egiten dituzte; 2011koan Zarautzen eta Zestoa, besteak beste.

15. Lehen aipatu dugun salbuespena kontuan izanda, jakina, behatu ditugun elkarriketen artean izango zirelako Aian bizi ez direnenak, baina une horretan Aian zeudenak.

16. Laburpen honetan aipatutako bibliografia.

BIBLIOGRAFIA¹⁶

ALTUNA, O. eta BASURTO, A., 2012, "Hizkuntza-erabileraren neurketaren metodologia", *Bat*, 84, 2012(2), 17-30.

ALTUNA, O. eta BASURTO, A., 2013, "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa", Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

APPEL, R. eta MUYSKEN, P., 1987/1996, *Bilingüismo y Lenguas en contacto*, Gredos, Madrid.

EBPN, 2011, *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

ETXEBARRIA, M. 2003, "Español y Euskara en contacto", Linred (http://www.linred.es/articulos_pdf/LR_articulo_10072003.pdf)

ETXEBARRIA, M., (2014, argitara bidean), "Bilinguismo y dinámica de lenguas en contacto", in TRILLOS, M., eta BETANCOUR, Y.M., (eds.) *Contacto de lenguas en contextos multiculturales*, Universidad del Atlántico / CELIKUD / Ministerio de Educación de Colombia, Barranquilla.

EUSTAT, 2011, *V. Inkesta Soziolinguistikoa*.

ISASI, X., IRIARTE, A., 1998, "Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", *Bat*, 28, 51-80.

IURREBASO, I., 2012, "Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertzeko", *Bat*, 84, 2012(3), 89-101.

IURREBASO, I., 2012, "Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan", *Bat*, 84, 2012(3), 103-120.

IURREBASO, I., 2015, *Udalerri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera 1981-2011*, Soziolinguistika Klusterra, Andoain.

LOPEZ MORALES, H., 2004 (1989), *Sociolingüística*, Gredos, Madrid.

MARTINEZ DE LUNA, I., 2004, "Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak", *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran jardunaldiak*, Mendebalde.

MORENO FERNÁNDEZ, F., 2009, *Principios de Sociolingüística y de Sociología del lenguaje*, Ariel, Barcelona.

ROTAETXE, K., 1999, "Alternancia de código: uso y restricciones tipológicas", *Fontes Linguae Vasconum*, 1999(80), 31. urtea, 59-72.

SIGUAN, M., 2001, *Bilingüismo y lenguas en contacto*, Alianza, Madrid.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, 2011, *Ahozko hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologiaren garapena*, Andoain.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, 2014, *Udalerri euskaldunak EAEn: Egoera eta bilakaera, 1981-2011*, Andoain.

- ZALBIDE, M., 2009, *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan*, Udaltop.
- ZALBIDE, M., 2011, “Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka”, *Bat*, 79-80, 2011(2-3), 13-152.
- ZARRAGA, A., eta al, 2010, *Soziolinguistika eskuliburua*, Eusko Jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra, Gasteiz.
- ZUAZO, K., 2014, *Euskalkiak*, Elkar, Donostia.